

# €konomiarenKZ

Euskal Ekonomiaren Kazeta

11. alea • 2009ko Apirila • Doaneko Alea • Hirugarren Urtea • Harpidetzak: 944213031 • Lege Gordailua: BI - 0371 - 08

Orain ere Interneten: [www.ekonomiarenkz.eu](http://www.ekonomiarenkz.eu)

ELKARRIZKETAK



Jorge Unda  
SENER Ingeniería y Sistemas  
S.A.ko zuzendari nagusia

“Mundu osora zabaldu  
nahi ditugu eguzki-  
energiako plantak”

12-13. orrialdea



Eneko Claramonte  
Bizkaiko RDT Ingenieros-en  
zuzendaria

“Gure fakturazioaren  
%6 I+Gra bideratzen dugu”

8. orrialdea

ERREPORTAJEAK

## Langabezi tasak gora egiten du



Pedro Luis Rio Oyarbide Bizkaiko INEMeko zuzendari probintziala

Estatu mailan hurrengo urterako %20ko langabezi tasa aurreikusten da. Euskadiri dagokionez, langabezia gehiago nabarmendu da Bizkaian, bertan langabezi tasak %5,30 igo egin baitu. Gaiari buruzko informazio gehiago batzeko Bizkaiko INEMeko zuzendariaren adierazpenak lortu ditugu.

11. orrialdea

## Sektore turistikoak beherakada nabaria izaten du Estatuan



Gobernua urte honetarako %1,6ko jaitsiera aurreikusten du, bereiziki, Espainian ostalaritzarekin zerikusia duten bi kate indartsuak arazoak izan dituzte, Sol Meliá eta NH Hotelak, hain zuzen.

11. orrialdea

ALBISTEAK

## Euskadiko enpresen perspektibak

Aurten, EAeko enpresen %17 igoko dira soilik. Hala ere, emaitza hauek Espainiako Estatukoak baino

baikorrakoak dira. Erakuntza eta industria sektorerik kaltetuenak izango dira.

6. orrialdea



## AEBetako egoera larritzen da



AEBko BPGK 2008ko azkeneko hiruhilekoan %6,2 behera egin du. Citigroup, bankurik boteretsuenetako

rikoak, arazo larriak ditu aurrera egiteko eta krisi honetatik atera ahal izateko.

3. orrialdea

## STAFF

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94 421 30 31  
 E-MAILA: [ekonomiarenkz@leizaola.org](mailto:ekonomiarenkz@leizaola.org)  
 POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kutxatila, 48080 Bilbo  
 ADMINISTRAZIOA: Pabli Zubiaur.  
 MERKATARITZA KUDEAKETA: Nuria Martínez.  
 TESTUAK: David Hillera  
 DISEINU ETA MAKETAZIOA: Gonzalo Peña.  
 BANAKETA ARDURADUNA: Sergio Fernández.  
 EUSKARAREN ARDURADUNA: Labayru Ikaslegia  
 EGILEA: Leizaola Elkarte  
 HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonoan.



Bilbao Foru Aldundia  
 Diputación Foral de Bizkaia  
 Ekintza honek Bizkaiko Foru  
 Aldundiaren Kultura Sailaren  
 laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
 Hezkuntza Politikarako Saiburuordetza  
 DEPARTAMENTO DE CULTURA  
 Viceconsejería de Política Lingüística

KULTURA SAILAK  
 (KULTURA SAILA HIZKUNTZA  
 POLITIKARAKO  
 SAIBURUORDETTA)  
 DIRUZ LAGUNDUTAKOIA

ADITUAREN  
IRITZIA

Jose Luis Jimenez  
Brea

Innobasqueko Eraldakuntza  
 Enpresarialaren zuzendari  
 nagusia

Nazioartekotzearen  
 garrantzia

Euskadiren nazioarteko-  
 tzea Espainiako Estatuare-  
 narekin alderatzen badu-  
 gu, baieztatu dezakegu es-  
 kal enpresen nazioarteko-  
 tzea Estatuak baino handi-  
 goa dela. Enpresa hauen  
 artean bi talde bereizi di-  
 tzakegu; alde batetik, na-  
 zioartekotzearekin hasten  
 diren enpresak, hau da, au-  
 rrerara egiteko laguntza edo  
 kolaborazioak behar dituz-  
 ten enpresak (baliabide eta  
 esperientziarik gabekoak).  
 Bestalde, etapa hori gain-  
 dituzten enpresak daude;  
 honakoak arrakasta handia  
 daukate Euskadin, baina le-  
 henengo taldean kokatzen  
 diren enpresen portzentajea  
 igo egin behar du.

Nazioartekotzearen in-  
 guruko erabakiak pertso-  
 nek hartzen dituzte; beraz,  
 beharrezkoak dira hainbat  
 aldaketa bai gizartean zein  
 kulturatan. Europako beste  
 herrialdeetan, adibidez,  
 enpresek honen inguruko  
 erabakiak hartzen dituzte  
 era naturalean; Euskadin,  
 oraindik ez gara aldi hor-  
 rretara iritsi. Egun ez da  
 nahikoa merkatu lokalare-  
 kin, enpresek harago begi-  
 ratu behar dute eta nazio-

## GORA / BEHERA

## GORA

Bankinter Kilimanjaroko fondoak urteko  
 errentagarrienak izan dira

Ekonomia eta bankuek, orokorrean, garai latza bizi arren,  
 garaile atera diren talde batzuk ere badaude, haien  
 artean Bankinter Kilimanjaroren fondoak nabarmentzen  
 dira. Azken urte honetan %18a irabazi dute, Bankinterren  
 fondoa errentagarria izan da, honela adierazten dute  
 Invercoko datuek. Horregatik, fondo globalen zerrendaren  
 buruan aurkitzen da BK Kilimanjaro, Merkatuaren  
 Baloreen Batzorde Nazionalaren (CNMV) arabera.

Esan dugun bezala, Kilimanjaro lehenengoa eta  
 errentagarria da, baina bere atzetik emaitza po-  
 sitibo lortu duten beste hainbat fondo egon badaude.

Kudeatzaile hauek gestio librea praktikatzan dute,  
 hots, ez daude merkatuaren menpe, baizik eta haien



kabuz egiten dituzte kudeaketa eta erabaki guztiak.  
 Beraz, emaitza onak izanez gero aurrera jarraituko  
 dute, bestela porrot egin.

## BEHERA

Gürtel operazioak kolokan jartzen du PPren  
 sinesgarritasuna

PP alderdiko kideen artean urduritasuna hedatu da,  
 "Gürtel operazioa" ez da batere onuragarria izan Espai-  
 niako alderdirako. Kasua Audentzia Nazionaleko Baltasar  
 Garzon epailea darama. Ustelkeria ospetsu honek  
 PPko zuzendaritzarekin (Aznarren garaikoarekin) lotura  
 du, autonomi erkidego desberdinetako PPko goi-kargu-  
 dunak nahasiak daude azpizjoko honetan.

Francisco Correa enpresariak Gürtel ("correa" gaste-  
 leraz) operazioaren burua da. Berak, beste politikari  
 eta enpresari batzuekin batera, entitate publikoen fon-  
 doak bereganatu ditu. Ustez, Madril eta Valentiako  
 udal desberdinetako dirua ostu ez ezik, autoritate pu-  
 bliko eta zenbait funtzionario ere sobornatu dituzte.

Inputatuen izenak argitara atera dituzte hainbat  
 hedabidek, horregatik Mariano Raxoik sumarioa ken-



Francisco Correa ohizko ustelkeriaren burua

tzeko eskatu dio Garzoni, alderdiko izen ona ez zikin-  
 tzeko helburuarekin.

## Egin zaitetz harpide!

Ekonomiaren KZ etxean hilero doan jaso nahi baduzu, bidal ezazu  
 ondorengo kupola honako helbidera:

· 612 Posta Kutxatila. 48080 Bilbo,  
 · edo idatz ezazu [info@ekonomiarenkz.eu](mailto:info@ekonomiarenkz.eu) posta helbidera,  
 zure izen-deiturak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa adieraziz.

ABIZENAK: \_\_\_\_\_ IZENA: \_\_\_\_\_  
 HELBIDEA: \_\_\_\_\_  
 TELEFONOA: \_\_\_\_\_ E-MAIL: \_\_\_\_\_  
 HERRIA: \_\_\_\_\_ P.K.: \_\_\_\_\_

arteko merkatuan burua  
 sartu, mundu osoko merka-  
 tuekin lehian sartzeko eta  
 nagusitzeko aukera izateko.

Krisiari dagokionez, argi  
 dago fenomeno honek eragi-  
 na izan duela nazioarteko-  
 tzean; izan ere, gaur egun  
 martxan jartzeak ziren zen-  
 bait proiektu edo ekimen ez

dira aurrera eramanez krisia  
 dela-eta. Baina, bestalde,  
 merkatu lokal edo naziona-  
 lek beherakada nabaritu-  
 dute euren salmentetan, eta  
 horrek nazioartekotzea bu-  
 l-tzatuko du, hots, krisiak hain  
 gogor jotzen ez duen lurral-  
 deetan enpresak hedatu egin-  
 go dira.

## KOMIKI



[www.blazquezcobo.blogspot.com](http://www.blazquezcobo.blogspot.com)

## ALBISTEAK

# Egoera ekonomikoa larriagotzen ari da AEBetan

Munduko lehen potentzia azken 26 urteko jaitsierarik handiena pairatzen ari da

AEBetako ekonomiaren egoera gero eta sostengaezina-goa da. Bere Barne Produktu Gordinak (BPG) %6,2 egin du behera 2008ko azkene-ko hiruhilekoan. Gauzak horrela, oso posiblea da 2009ko lehenengo hiruhilabetean datuak ez hobetzea.

Munduko lehen potentziaren porrotaren ostean, adituek ziurtatzen duten bezala, egoera asko aldatu beharko da AEBek 2010etik aurrera burua altxatzeko.

1982. urtetik, Ipar Amerikan inoiz ez da ikusi ho-

nelako jaitsierarik. Kabinete berriak baieztatu du BPG gehienez %3,8 jaitsiko dela.

Azken finean, jaitsiera horren ondorioak hainbat faktoretan nabarmendu dira, gehienbat kontsumitzaileen artean, azken urte honetan haien gastuek %4,3 egin baitute behera. Batez ere, kotxeak, altzariak, arropa edo antzeko beste ondasun batzuk erosteko orduan. Enpresek ere gehiago kontrolatu zituzten euren gastuak,

eta ageriko jaitsiera izan dute, esaterako, softwarean edo inbentarioan. Horrez gain, eraikuntzaren

“Enpresen %17 bakarrik igoko dira 2009an”

sektoreak ere beherakada garrantzitsua pairatu du. Esportazioari dagokio-



nez, orain arte AEBen euskarri inportantenetakoa izan dena, jaitsiera izugarria izan du azken urte honetan, %23koa, hain zuzen ere; jaitsierarik larriena 1971. urtetik. Langabezia lehenengo potentziaren beste kezka bat da; %7,6koa da eta adituek ziurtatzen dute gehiago igoko dela.

Citigroup lur jota

Ipar Amerikako bankurik indartsuenetarikoa, Citigroup, arazo larriak ditu

aurrera egiteko. Pasa den urtetik ez du burua altxatzen, eta bere akzioen %39k behera egin du; izan ere, 21.700 milioi euroko galerak izan zituzten 2008an zehar.

Britainia Handian egoera antzekoa da; kasu honetan, Lloyds bankua izan da porrot handiena jasan duena. Nahiz eta aurreko urtean Halifax Bank of Scotland (HBOS) eskuratu, bere ondasunak %75 jaitsi ziren urte batetik bestera, 2007tik 2008ra.



## LAB greba orokorra egiteko prest dago

LABek beste sindikatuekin batera deitu nahi du greba orokorra. Ainhoa Etxaidek, LABeko idazkari nagusiak, aitortu du egoera ekonomiko honi aurre egiteko gainontzeko sindikatuekin bildu nahi direla. Etxaidek aldarrikatzen du langileek pairatzen duten egoerari aurre egiteko greba orokorra egitea beharrezkoa dela.

LABeko idazkari nagusiaren aburuz krisi garaian kaltetuenak langileak dira, “beharginen soldata %4

jaitsi da”, gogorarazten du Etxaidek, “aberastasuna ez da behin ere langileen artean banatzen. Horrez gain, enpresariak hartzen ari diren neurria lanpostuen murrizketa da”, gaineratzen du idazkari orokorrak.

LAB eta ELA sindikatuak duela aste batzuk bildu ziren lankidetzaren proposamenaren inguruan eztabaidatzeko. Hala ere, Etxaidek ziurtatu du ez dutela elkarriketa horretako edukien berri jendarean emango.

## 100.000 milioi euro baino gehiagoko berankeria izango da aurten

2009ko bigarren hiruhilabetearen berankortasunaren indizea %6ra ailega daiten. Espainiar Estatuko bankuek

askok ezin diote bankuekin dituzten sorrei aurre egin.



emanda ko kreditu berankorren kopurua 100.000 milioi euro baino gehiago izango da.

Krisi eta langabezia dela eta, enpresa eta familia

2008ko abenduan, Espainiako Bankuaren hitzetan, bankuak, kutzak eta kooperatibak beste enpresa edo partikularrei emandako kredituak %3,29ra iritsi ziren. 2007ko datuen hirukoitzan.

Pasaden urteko abenduan ere, kreditak eman ahal dituzten Estatu bankuen zalantza kobrantza kredituen kopurua ia 60.000 milioi eurokoa zen. Berandutzeak, Estatu mailan, 1997an %3a gaintu zuen lehenengo aldiz.

## ALBISTEAK

## Sektore turistikoak beherakada nabaria izaten du Estatuan

Espainiar Estatuan krisi hitza behin eta berriro entzuten dugu telebistan, irratian, egunkarietan, kaletan, e.a. Ekonomiaren egoera gaur egun txarra dela badakigu eta erori den beste sektore bat turismoarena izan da. Estatu mailan sektore turistikoak Barne Produktu Gordinaren (BPG) %12a adierazten du. Espainiako Estatistika Insitutu Nazionalaren (INE) arabera hotelen okupazio-tasa %34,8koa izan da urtarrilean, pairatutako beherakada hau historia osoko baxuena da.

Honek esan nahi du sektoreak %13,6ko urritzea izan duela iazko urtarrileko datuekin alderatuz. Hilabete horretan, gainera, hoteletako logelaren prezioa %2,6a jaitzi zen, hortaz, logela bakoitzeko lortutako irabaziak %1,5a ere murriztu ziren.

Bestalde, urte honetarako egiten diren iragarpenak ez dira batere onak turismoarentzat, 2009an %3ko jaitziera kalkulatu da BPGn. Ekonomia arloan, orokorrean, Gobernuak iragartzen du %1,6ko beherakada 2009-rako. Beraz, turismoaren arloa bikoitza gutxituko da.



Bilbo hiriguneko NH Hotela

### Sol Meliá eta NHren kasuak

Estatuan, ostalaritzarekin zerikusia duten bi kate indartsuak arazoak izan dituzte. Alde batetik, Sol Meliá, hauek positiboki begiratzen dute etorkizunera, 2009ko bigarren seihi-lekoan espero dute gora-

kada bat izatea petrolioaren egonkortzea, euroaren depreziazioa eta interes tipoen beherakadarekin baera. Bigarren ostalaritza kate ospetsua NH hotelak dira, kasu honetan krisia nabari dute batez Espainia eta Italian, horiek izan dira zonalde kaltetuenak NHrentzat.

## Elkargik 60 euro baino gehiagoko kredituak onartu ditu

Elkargik Eusko Jaurlaritzak bermatutako 60 milioi euro baino gehiagoko dirulaguntzak onartu ditu 166 enpresa txiki eta ertainentzat.

Eusko Jaurlaritzak bide eman dio neurriari, egun inoiz baino gehiago, en-

presek kreditu bat lortzeko dituzten zailtasunei aurre egiteko. Laguntza aurre egiteko. Laguntza aurre egiteko. Laguntza aurre egiteko.

Enpresa txiki eta ertain-

entzako dirulaguntzak 500 milioi eurokoak dira. Ondoren, Eusko Jaurlaritzak operazioen arriskuaren %90a bermatuko du, eta bankuek euren aldetik, kredituak emango dituzte (Euriborra gehi %0,60ko interean).

Sociedad de Garantía Recíproca Elkarriko Garantía Elkartea

# ELKARGI

## Txinako inbertsioak igo dira

Txinako Gobernuak oraingoz ez du arazorik zorrak ordaintzeko, baina krisia ere nabari egin dute arlo batzuetan. Pasaden azaroan, Pekinek 465.000 milioi euroko inbertsio plana iragarri zuen eta motz geratu zen. Aurreikuspen horren ondoren, burtsa baikorra izan zen eta petrolioaren, kobreaken eta altzairuaren prezioek gora egin zuten.



## Emakume enpresari sarituak



Bizkaiko Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak (AED) emakume desberdinak saritu dituzte, haien artean Marta Acilu, Noray Bioscience Groupeko presidenteordea. Talde horretan bioteknologia ardatza da eta zehar aurrerapen eta ideia berriak proposatu dituzte enpresaren bizitzan zehar. Sarituak izan diren beste bi emakume Juana Ruiz eta Garbiñe Urdampilleta izan dira, Jotamás Geko sortzaileak, azken elkarte hau modaren

inguruan egiten du lan. Azkenik, Eroski bere sari propioa lortu du ere, zehazki, Eroskiko Berdintasunaren Behatokia.

Matilde Elexpuru, AEDko presidentea, poztu egin zen emakumeen egoera hobetuz doalako, gero eta enpresa gehiagotan baitaude emakume goi-kargudunak. Azken bost urteotan zuzendaritza eta erdi-mailako aginte karguetan dagoen emakume kopurua bikoiztu egin da.

## ALBISTEAK

## Euskadi behera doa, baina poliki

Pedro Luis Uriarte Innobasqueko presidentek krisi egoera aztertu du eta Euskadiren etorkizunari buruz esaten du emaitzak ez direla hain txarrak beste lurraldeekin alderatuz. Gainera, zorra gutxien duen Europako bigarren eskualdea da (268 eskualdeen artean).

Langabezi tasari dagokionez, Uriartek 2010. urterako %20ra iritsiko dela iragartzen du, eta 5 milioi langabe aurreikusten ditu.

"Eguzkia beti ateratzen da, baina ez aldi berean", esaldi honekin Uriartek esan nahi du krisiaren bukaera ez dela amaituko bat-batean eta leku guztietan batera. Innobasque-



ko presidentearen aburuz, AEBetan lehengoak izango dira eta haien atzetik Europa, Espainia azkena izanik. Uriartek dio Euskadiren egoera momentu honetan Espainiakoa baino hobea dela, "Euskadi krisi astun honetatik lehen bait lehen atera behar da, garaileak suertatu eta krisi

honetatik lehenengoentariakoak irten behar gara" gaineratu du Uriartek.

## Epe-laburrerako helburuak

Presidentearen arabera, egoera hauetan ateratzen dira beti ideiak hobereentariakoak eta estrategia esanguratsuak. Horregatik

krisiaren giltza pentsatzea da, "orain arte pentsatu ez dugun bezala" dio Uriartek.

Bere helburuen artean hurrengo hauek aurkitzen dira: 2009an Europar Batasuna baino gehiago hazitea, langabezi tasa estatuarenaren azpitik mantentzea eta BPG altuene-

terikoa izatea, bai EBean baita Espainian ere. Uriartek nabarmendu egin zuen Euskadiko pobrezia tasaren informazioa, Estatuko autonomi erkidego guztien artean, gurea baxuena da eta.

Euskadik zorra gutxien duen Europako bigarren eskualdea da

Amaitzeko, Uriartek eskatzen die erakunde guztiei kapitala kudeatzeko orduan, orain inoiz baino gehiago, batera mantentzea.

## Nola lortu errentagarritasuna krisi garaian?

PriceWaterHouseCooper (PWC) enpresak errentagarritasunaren inguruko jardunaldia antolatu du. Garai honetan, hainbeste ez-kortasun artean, oso ondo datozkigu mota honetako batzarrak. PWC zerbitzu profesionaleko erakundeirik handiena da, eta 153 lurraldetan lan egiten du. Espainiako Estatuan 317 aditu eta enpresaburuk osatzen dute elkartea.

PWCko zuzendari Jesús de la Fuente garai erraz batetik gatzela esan du; hori dela eta, duela gutxira arte ateratzen ziren proiektu gehien finantziarioak lortzen zuten, baina gaur egun ez. Krisia dela eta, finantziarioa izatea oso zaila da, eta ez da arriskutsua enpresa berrientzat soilik, martxan jarrita dauden proiektuak ere arriskuan daude. Bestalde, zorren kostuak oso merkeak ziren; beraz, egun zailagoa da zorrore aurre egitea. Hala ere, beste garai batean sartu garelako onartu behar dugu. "Krisia egon badago eta ezin dugu iazko edo duela bi urteko kudeaketa berbera egin", dio de la Fuente.



Ezkerretik eskuinera: Cristina Torres, Jose Domingo Ampuero, Javier Urizarbarena, Jesús de la Fuente eta Juan Alcibar.

## Produktu merkeen eskaera igo da

Kontsumoari dagokionez, bezeroek erosten dutenaren kopurua ez da aldatu, baizik eta produktuen prezioa eta kalitatea, hots, erosleek jada ez dute kontsumitzen produktu garestirik, orokorrean, nahiago dituzte marka zuriak edo merkeagoak. Juan Alcibarrek, PCWko aholkulariak, adibide bat ipini du: "saltxitxak

salzten dituen enpresa batek, esaterako, ekonomi-

"Bezeroek egiten dituzten erosketen kopurua ez da aldatu"

koki inoiz baino hobeto dararama negozioa orain"; hori

krisiaren beste ondorio bat da. Jendeak jadanik ez du etxetik kanpo hainbeste jaten edo afaltzen, nahia- go du etxean merkea den zerbait jatea, saltxitxak kasu. Hortaz, krisi garaian garaile ateratzen diren enpresak egon badaude.

Alcibarrek dio eman behar dugun lehenengo urratsa gure enpresaren ikerketa dela. Jakin behar dugu zein industria edo sektoretan kokatzen garen, gerora merka-

tua aztertzeko eta gure aukeren balantzea egiteko.

Azkenik, gomendio gisa, PCWko buruek epe luze-ko plan edo estrategia bat izatea aholkatzen dute. "Enpresa guztiek jakin behar dute zein izango den euren kapitala lau urte barru. Ez gara asmatzailerak izan behar, baina edozein konpainiatan aurreikuspenak oso garrantzitsuak dira", argitu du PCWko zuzendariak.

## ALBISTEAK

# EAEko emaitzak Espainiar Estatukoak baino hobekak izango dira aurten

“Euskadiko Enpresa Perspektibak” 2009rako enpresen aurreikuspena aztertu du, Euskadiko emaitzak Europar Batasunekoak eta Espainiakoak baino hobekak izango dira txosten honen arabera. EAEko Enpresa Perspektiben Inkestak adierazten du urte honetan negozio zifren hazkundea jaitzi egingo dela eta enpresen %17 bakarrik izango direla gorakada horren onuradunak. Hala eta guztiz ere, emaitza hauek Espainiar Estatukoak baino askoz positiboagoak dira. Jaitziera honek sektore guztiei eragingo die, batez ere eraikuntza eta industriari (krisi honetan, orokorrean kalteuenak izaten ari dira).

Aditu, inkestak eta ia ekonomilari guztiek aurreikuspen ezkorra dute urte honetara begira, baina kasu honetan enpresa txikien

arriku gehiago dute, hainbat denda itxi dira auzo edo hirietan, eta inkestek kopuru hori hurrengo urtean igoko dela iragarri dute.

Esportazioari dagokionez, barne salmentak baino bilakaera hobea izango du 2009an. Dena den, hazkunde aurreikuspenak esanguratsuki murriztu dira. Gorakada honen onuradunak enpresen %10a izango dira, 2008ko batzbestekoaren herena. Esportazioen jaitzieren arrazoiak honako hauek izan lirake: hazkunde iragarri duten enpresen proportzioa jaitzi egin da, mantendu egingo direla aurreikusi dutenak hazi egin dira eta jaitziera espero dutenak ere igo dira.


Enpresen mesfidantza Bestalde, inkestan Euskadiko enpleguari buruz

galdetzerakoan, %57k egonkor mantentzea espero du. Talderik positiboan zerbitzu eta merkataritzakoak dira, aldiz, talde negatiboan behin gehiagotan erai-

Enpresen mesfidantza

Bestalde, inkestan Euskadiko enpleguari buruz

## NEGOZIO ZIFRA EUSKAL ENPRESAK GUZTIRA



\* 2009 urterako aurreikuspenak

kuntza kokatzen da. Oro har, 2009ari begira, EAEko enpresen %62k konfiantza galdu dute. Kasu honetan, Euskadiko emaitzak EBkoak baino txarragoak dira.

Azken finean, EAEko inkestak bildutako emaitzek erakusten dute 2009an BPGaren hazkunde tasa murriztu egingo dela eta ziur aski %0-0,4 artean katu dela.

Azken finean, EAEko inkestak bildutako emaitzek erakusten dute 2009an BPGaren hazkunde tasa murriztu egingo dela eta ziur aski %0-0,4 artean katu dela.

## Europako Batzordeak ez du utziko herrialde bakar batek porrot egitea



Jose Manuel Durao Barroso Europako Batzordeko presidentek jakinarazi du EBk badituela laguntza emateko hainbat tresna. Hala ere, ez du argitu zein motatako laguntza eman go duten, momentuz berme hori inork ez duelako behar.

Joaquín Almunia Ekonomia komisarioak zehaztasun gutxi eman ditu ere: “irtenbidea jendaurrean esatea ez da oso zuzurra, baina egon badago”. Dena den, EBren itunaren arabera bi arau daude estatu-

kide bat salbatzeko. Alde batetik, Europako Banku Zentralak ezin ditu estatu-kideek jaulkitako zorra erosi, bestaldetik, EBko kide batek jasotako zorra ezin zaie gainontzekoei ordainarazi.

Proposamenarekin bat ez datozen herrialdeak badaude, Alemania eta Herbeherak, beste batzuen artean. Haien aburuz, ez da bidezkoa orain baino interes handiagoa ordaindu behar izatea egoera okerrean dauden estatukideei laguntzeko.

## ALBISTEAK

## "Benetako krisia oraindik ez da iritsi"



Santiago Niño Becerra Ramon Llull unibertsitateko katedraduna

Orain arte hamaika iritzi desberdin entzun ditugu krisiaren inguruan, baina Santiago Niño Becerrak emandakoa gogorrena eta agian errealena izan da. Ekonomi Egiturako Katedradun honek dio krisiaren hasiera ez dela oraindik iritsi eta hurrengo

3 urtetan egoera larrituko dela ziurtatzen du. Becerrak Ramon Llull unibertsitateko ekonomia irakasle gisa egiten du lan, eta potentzia handiak hartzen ari diren neurriak kritikatzeko dituzte, ez direla ezertarako balio esanez.

"2010ean hasiko den krisia ikaragarria izango da, eta handik ateratzea ez da erreza izango", horrez gain Becerrak ere egoera hau 1.929ko crack ospetsuarekin alderatzen du. Aholkulari bat ematen die munduko ekonomilariei: "egun-

goa krisi sistematikoa da, beraz, sistema ekonomikoaren funtzionamendua aldatu behar dugu, agian ez dakigu nola, baina hori izango liriteke irtenbidea".

Bere ustez oraindik aurrekrisian gaude, 2007an hasitakoa, subprimeen arazoa iragartzen du. Katedradunaren iragarpena honako hau izan da: "2010-eko ekain edo uztaila arte iraungo du egungo egoera, baina handik aurrera benetako krisia ailegatuko da mundura, ekonomia hondoratuz 2012. urtera arte". Lurralde zehatz batzuetan ekonomia beherakada handiagoa izango du, Becerraren aburuz Espainina, Alemania, AEB eta Txina izango dira

jaitziera hori gehien nabarrituko dutenak.

## Krisi luzea

Krisialdia oso luzea izango da, iraupenaren aldetik Depresio Handiarekin alderatzen du irakasleak, beraz, 2020. urtean egoera lasaituko da, baina kapitalismoaren bukaera oraindik ez da iritsiko. "Edozein sistemak 250 urteko bizitza du, kapitalismoa 1820an

jaiotzen zen, beraz, sistema honen amaiera 2070ean inguru ailegatuko da".

Azkenik, etorkizunari begira, potentzia ekonomiko berria aurreikusten du: "Estatuaren figura desagertuko da eta korporazio handiek indar gehiago hartuko dute".

"2020an egoera lasaituko da"

**Entra, estamos abiertos.**  
Toda la información sin barreras en [deia.com](http://deia.com)

## ELKARRIZKETA

# Eneko Claramonte

*Bizkaiko RDT Ingenieros-en zuzendaria*



*Eneko Claramonte RDT Ingenieros-en Bizkaiko Bulegoko zuzendaria da. RDT Ingenieros 2006ko urrian eratu zen Bilbon; gerora, 2007ko irailean beste bulego bat ireki zuten Bartzelonan (Barcelona Activa-ren laguntzarekin). Hedapen horren azken urratsa pasa den urteko maiatzean eman zen, Madrilen irekitako bulegoarekin, Imade-ren laguntzarekin.*

*RDTren aktibo nagusia bertan lan egiten duten pertsonak dira, eta beste ingeniartzetatik desberdintzen dutenak akziodunak dira, kasu honetan, langileak baitira akziodunak. Enpresa gazte honen ibilbidea eta egoera ezagutzeko, Eneko Claramonterekin hitz egin dugu; berak kontatu digu zein den RDTren egoera krisi garai honetan, beste gauza batzuen artean.*

Gaur egun, krisi garaian murgilduta gaudela, zeintzuk dira RDT Ingenieros-en aurreikuspenak urte honetarako?

Egin ditugun iragarpenak onak dira; RDT prest dago krisiari aurre egiteko. Dena den, krisiak eragina izango du gure enpresan eta bezeroengan, jakina. Hala ere, RDT Ingenieros-en bi urte baino gehiago daramatzagu egoera honetarako prestatzen, zehazki, 3 ikuspuntu desberdinetan: ekonomikoki, sektore desberdinen dibertsifikazioan eta markaren onespenean.

Ikerkuntza eta garapenari dagokionez, ze garrantzi ematen diozue RDTn gai honi?

Gutxi gorabehera gure fakturazioaren %6 I+Gra bideratzen dugu. Bi ikerkuntza mota eramaten ditugu aurrera: bata ingeniartzaren metodologiarekin dauka lotura; horri esker, eraginkor eta lehiakoragoak izan gaitezke. Bestea produktu berrien sorkuntzan edo ingeniartzarekin zerkusia duten zerbitzuetan zentratzen da.

Eta gizarrean, orokorrean, zein garrantzi du I+Gk?

RDT Ingenieros hiru gizarte desberdinetan banatzen den elkarte da: Euskadin, Katalunian eta Madrilen. Gizarte bakoitzak bere aurrerakuntza eta gidalerroa ditu I+Gren inguruan. Hau da, lurralde bakoitzeko zuzendari edo arduradunak bere ukitu pertsonala ematen dio enpresari, eta erabakietan guztiz askeak gara.



Eneko Claramonte Bizkaiko RDT Ingenieros-en zuzendaria

## "Gure fakturazioaren %6 I+Gra bideratzen dugu"

Esan duzun bezala, RDT Estatuko 3 lurralde desberdinetan hedatu da azken urte hauetan zehar; etorkizunari begira, pentsatuta duzue hedapen edo zabalkuntza honekin jarraitzea?

Adibidez, gaur egun 50 ingeniari baino gehiago ditugu Euskaditik kanpo lan egiten. Beste alde batetik, pasa den urtearen amaieran "RDT Engineers" marka komunitarioa erregistratzea lortu genuen. Marka horren xedea atzerrian proiektu berriak irekitzea da. Horregatik, zehazki, gure helburua 2009. urtea bukatu baino lehen 10 ingeniari atzerri-

ra eramatea da, bertan nazioarteko proiektu berrietan parte hartzeko edo proiektu berriak lortzeko.

Enpresaren plantilla gaztea izateak abantaila handiak izango ditu; zer derituzu?

Gure ingeniarien batezbesteko adina 30 urte ingurukoa da, hots, baditugu ingeniari oso gazteak 3 urteko esperientziarekin, eta, bestalde, badaude 10 urte baino gehiago daramaten ingeniariak ere. Abantailarik nabarmenena izan daiteke ez dutela aurrez pentsaturiko ideia edo iritziarik, eta, horrela, azkarrago hartu dezakete

RDTren filosofia. RDTn bikoiztasun edo gorentasunari ematen diogu lehenetasuna. Hemen ez dago kontrolatzaile; bakoitzak bere lana egiten du presio barik, eta langile edo ingeniari bakoitzak bere ardurak ditu eta bere proiektuen arduraduna da. Ez da beharrezkoa norbait gainean izatea, RDTn independenteak gara.

Ingeniartzaren zein sektore lantzen dituzue gehienbat?

Batez ere aeronautikan, automozioan, energia berriztagarrietan eta talde ondasunetan zentratzen gara. Urte honi begira, RDT

Ingenieros-en helburua sektore gehiagotara iristea da, hau da, negozioaren dibertsifikazioa. Dena den, uste dut gure kokapena, sektore eta bezeroei dagokienez, ez dela batere txarra.

Krisiaren gaia berreskuratuz, eragina izan du zuegan edo zuen sektorearen bat kaltetua izan da krisi ekonomiko-finantzarioagatik?

Egia esanda, gehienbat automozioaren proiektuetan nabaritu dugu krisi honen eragina. Arrazoia, batez ere, lantzen ditugun ibilgailuetan datza. RDTn ibilgailu berriekin lan egiten dugu, eta auto hauen ekoizpena gaur egun geldirik dago. Horregatik, automozioan beste sektoreetan baino galera gehiago izan ditugu. Dena den, zorionez, gure fakturazioaren alderdi hori gainontzeko sektoreen gorakadarekin orekatzen da, aeronautika edo energiarekin, esaterako.

Esango zeniguke, mesedez, zein neurri hartuko zenukete RDT Ingenieros-etik zenbait sektore kaltetzen ari den krisi hau gelditzeko?

Bizkaiko bulegoari dagokionez, lehenengo neurria izango litzateke gobernu sendo eta tinko baten sorrera. Ideia eta ekimen berriak sortu, batez ere I+Gn gehiago inbertitu, langileak trebatzeko ikastaroak antolatuz, ekintzaileari proiektu berrietan lagundu eta diru-laguntza gehiago eman, langabeen kualifikazioa handitu ikastaro desberdinekin, e.a. Azken finean, helburua da enplegatu eta enpresen produktua handiagotzea, horrela, krisitik irteteko garaian, prest egongo gara proiektu onenak eskuratzeko.

**Gure gizarte erantzukizunak ingurumena zaintzera behartzen gaitu...**



### **...maila handiko teknologiarekin**

ITP Taldean ahalegin handia egiten dugu ikerketa alorrean hegazkin-motor eraginkorragoak eta atmosferara CO<sup>2</sup> gutxiago isuriko dutenak diseinatu eta egiteko, teknologia horren garapenean berrikuntzak eginez, eta etengabe hobetzeko talde-lana bultzatuz. Eta horregatik, Ingurumen alorreko Baimen Integratua jaso duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara.

Ingurumena errespetatzeari dagokionez aitzindari izateko jarri genuen helburua betetzen ari gara.



Planta de Zamudio

[www.itp.es](http://www.itp.es)



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.

## ERREPORTAJEA

# Bilbondoren eraldaketa edo zabalkuntza?

*Basauriko merkataritza-gunea berritu nahi dute Eroski Taldekoek; denda eta ekintza berriak eraiki nahi dituzte jendearen aisialdirako. Horren guztiaren aurka agertu diren lehenengoak Basauriko eta, orokorrean, Bizkaiko merkataritza txikiak izan dira. Elkarte batzuk ez daude prest handitze hori jasateko eta neurri legalak hartzeko prest daude.*



Eroskik Bilbondoren "eraldaketa" planarekin aurrera jarraitzen du; Eroskiko Garapen Saileko zuzendariak, José Miguel Fernándezek, erreforma honek Legea urratzen ez duela ziurtatu du. Basauriko alkate andreakin, Loly de Juanekin, bildu zen Fernández merkataritza-gunearen inguruan hitz egiteko eta akordio batera heltzeko edo konponbide bat aurkitzeko. Alkate andreak konfiantza izan du Eroskiko proposamenarekin, eta ez da azaldu erabaki horren kontra, haiekin bildu aurretik.

Aldiz, Bizkaiko Merkataritza Federazioa eta PNV, PP eta EB-Aralar talde politikoak plan honen aurka agertu dira. Talde horien ustez, Bilbondon egin nahi duena ez da eraldaketa soil bat, baizik eta zentroaren zabalkuntza; beraz, proiektu honek Eusko Jaurlaritzak ezarritako Lurralde Sektore Plana (LSP) urratzen du. Dena den, Eroski Fundazioak gogorazten du bere helburua ez

dela Bilbondo 20.000 metro gehiago zabaltzea, baizik eta bere funtzionamendua edo erabilera eraldatzea; "erosleen eskaeraren arabera jarduten dugu, eta haiek eskatzen dituzte jatetxe, denda eta aisialdirako toki gehiago", dio José Miguel Fernándezek.

**"Ez dugu handituko pixka bat ere"**

Lurralde Sektore Planari dagokionez, Eroski Taldeak argi uzten du ez diola Legeari kalterik egiten, eta LSPko legediak merkataritza-gune berriei soilik eragiten diela errepikatu du.

#### Amorerik eman gabe

Eroski taldekoek ez dute parte hartu liskarraren hasieran, eta alde batera geratu dira; hala ere, hasieratik Bilbondo handi-

tzeta bultzatu dute. Eroskiko Garapen Saileko zuzendariak hitzarmen bat sinatu nahi du merkataritza txikiarekin; "auzitegiatara iristea oso garestia izan daiteke, batez ere garaile ateratzen ez denarentzat", jakinarazi du Fernándezek; era berean, "Basauriko Udalak eraldaketa ukatuz gero, neurri legalak hartuko ditugu Udalaren kontra", gaineratu du.

Bilbondo berria 2011. urtean estreinatu nahi dute. Eraldaketa horretan ez da ukituko Eroskiko hipermerkatua; "ez dugu handituko pixka bat ere, zabaltze hori denda txikiengan emango da soilik", baieztatzen du Fernándezek. Basauriko merkataritza-gune lekua egongo dela ziurtatu du; "50 eta 60 denda berriren artean irekitzea pentsatu dugu. Hori bai, Basauriko merkatariek lehentasuna izango dute euren dendak ezartzeko, baina atzerriko marken ez lekua izango dute". Eroskiko Garapen Saileko zuzendariak jarrera baikorra erakutsi du, eta bere aburuz Bilbondoko erreforma aukera bat izan daiteke tokiko merkataritzarako.

Bilbondo handitu, merkatu txikia murriztu

Eroski taldekoek eraldaketa bati buruz hitz egiten duten bitartean, Bizkaiko Merkatal Erakundearen Federazioak (Bizkaidendak) ez du erreforma horretan sinesten; haien aburuz, Bilbondon egin nahi duena zabaltzea da, hots, merkataritza-gunea metro

karratutan handitu. Hori dela eta, merkataritza txikiak proiektu hori salatzen dute, legeaz kanpo dagoelako eta euren negozioak zapalduta ikusten dituztelako. Hase-errealdi hori aldarrikatzeko eta protesta moduan, Basauriko zenbait denda itxi egin dira arratsalde batzuetan.

**"Ezin dute aretoa handitu metro bat ere"**

Eroskik Bilbondo merkataritza-gunea handitzeko aurkeztutako egitasmoa legeaz kanpokoa dela berretsi zuen Basauriko merkataritza elkarteak ere.

Halaber, Bizkaidendak elkartearen presidentea, Xabier Zelaia, ez dago batere ados Bilbondoren zabaltzearekin, eta Udalak handitze hori debekatzeko badu, epai batek egingo duela ziurtatzen du Zelaia. "Eraldaketa bat egin nahi badute, egin de-

zakete, baina ezin dute aretoa handitu metro bat ere, Legeak debekatzeko du eta", dio Bizkaidendak elkartearen presidentea.

Handitzearen aurkako jarrerak

Lurralde Sektore Planaren arabera, merkataritza-guneek, orokorrean, ezin dute izan 25.000 metro karratu baino gehiagoko azalera komertziala. Zelaia ustez, arazoa ez da bakarrik Basauriko auzokideena, eskualde osoarena baizik, hau da, Galdakao edo Arrigorriagarena, esaterako. Xabier harago doa bere adierazpenetan: "estatistikek dioten bezala, merkataritza-gune batean sortzen den lanpostu bakoitzagatik, tokiko merkaturako 3 langile kalera doaz".

Baina Bizkaidendak elkartearen helburu bakarra ez da Bilbondo, badute buuruan euren hurrengo biktima, Ballonti merkataritza-gunea, "eta LSPren legea jarraitzen ez duen edozein enpresaren kontra egingo dugu", adierazi du Zelaia.



Dendari batek prezioak ipintzen

## Bilbondoko ibilbidea

Bilbondo merkataritza-guneak 1990eko azaroan ireki zituen lehenengo aldiz ateak jendearentzat, Eroski Taldearen laguntzarekin. Basauriko merkataritza-gune handiena garatuz joan da bere historian zehar, eta ekintza edo denda berriak sortu ditu, batez ere 1993tik 2002ra. Horrela, Bizkaiko lehen Merkataritza Parkea bilakatu da.

Egun, "eraldaketaekin" jarraitu nahi dute, eta denda edo jatetxe gehiago eraiki. Ireki zenetik ia 19 urte igaro direnean, hainbat tirabira sortu dira Bilbondo eta Basauriko merkataritza elkartearen artean; arazo horiek konpontzekotan, alde bat edo bestea kaltetua izango da.

## ERREPORTAJEA

# Langabezia tasa %20ra iritsi daiteke datorren urtean

*Euskadiko langabezia tasak, aurreko hilabetearekin alderatuz, %5,05 egin zuen gora joan den otsailean. Horrek esan nahi du 115.653 langabe daudela EAEn; beraz, azken urte honetan 32.334 pertsona gehitu dira zerrenda beltz horretara.*



Krisi garaian sektore guztiek jasaten dituzte kalteak, baina, agian, behar-ginek gehiago nabaritzen dute. Azken urte honetan hainbat pertsona geratu dira lanposturik gabe, eta beste hainbatek ez du lanik aurkitu.

**Bizkaian, langabezia tasak %5,30 egin du gora**

Euskadiri dagokionez, langabezia gehiago nabarmendu da Bizkaian, bertan langabezia tasak %5,30 egin baitu gora. Atzetik Araba dago (%4,77) eta oso gertu Gipuzkoa (%4,73). 2008ko otsailarekin alderatuz, %38,81eko hazkundea izan da.

Aldiz, adinari dagokionez, langabe gehienek 25 urtetik behera dituzte (zehazki, 11.614 pertsonak). Beraz, ikasketak bukatzen dituzten gazteek, egun inoiz baino gehiago, arazo larriak dituzte lana aurki-

tzeko orduan. Gazteen artean, 7.164 mutil langabe dira, eta 4.450 neska.

Sektoreka, langabezia batez ere zerbitzuetan, industriari eta eraikuntzan (ordena horretan) hazi da. Nekazariek gutxiago nabari dute.

## Estatu mailan

BBVA bankuak egindako ikerketaren arabera, %20ko langabezia tasa aurreikusiten da 2010. urterako. BBVAren azterketaren arabera, aurten ekonomia %2,8 jaitsiko da petrolioaren beherakadagatik, beste gauza batzuen artean. 2009rako, %17,7ko langabezia tasa iragartzen dute, hurrengo urtean baino bi puntu gutxiago.

Otsailean, duela bi hilabete eskas, 3,5 milioi langabe zenbatu zituzten, baina 2010. urtean 4,5 milioi izango direla aurreikusten dute BBVAkoek. Hala ere, Espainiako Gobernuaren iragarpenak baino okerragoak dira; Zapateroren ustez, datorren urtean langabezia tasa ez da %17ra iritsiko.

Bankuak egindako azterketak dio munduko eko-

nomiaren jaitsiera eta etxebizitza sektorea direla egoera honen errudun nagusiak. BBVAren ustez, ekonomiak pixkanaka egingo dio aurre egoera horri.

## EAEko langabezia handituz doa

CCOOK berretsi du Euskadi atzeraldian sartuko dela urtea bukatu aurretik. Nahiz eta atzeraldi hori Estatukoa baino txikiagoa izan, egon egongo dela azpimarratu du Unai Sordok, CCOOKo Euskadiko idazkari orokorrak. Sordok dioenez, "Espainiako ekonomia ondo doanean, EAEkoa hobeto doa, baina txarto doanean, euskal ekonomiaren ondorioak larriagoak izaten dira".

Sindikatuak ziurtatzen du langabeziaren inguruan dituen datuak ez direla batere onak, eta argi utzi du gaur egungo krisiak ez daukala zerikusirik lan merkatuarekin. Euskadiko CCOOK iragarri du hemendik aurrera mobilizazioak eta lurraldeko biltzarrak egingo dituztela langileei krisiaren berri emateko. Horrez gain, ekainerako kontzentrazio handi bat prestatu nahi dute.

## "Bizkaia ez da probintziarik kaltetuena"

Pedro Luis Rio Oyarbide Bizkaiko INEMeko zuzendari probintzialak bere ikuspegi pertsonala eman du. Euskadin, industriaren sektorea kaltetuena dela baieztatu du Oyarbidek; "hiri industrialak dira, dena den; Bizkaia sektore industrial handiagoa du, Gipuzkoak, aldiz, txikiagoa; baina askotan enpresa txikiek handiek baino hobeto egiten dute aurrera" dio.

Horren ondorioz, zehazki, Bizkaiko krisiaren inguruan hitz egin du; zuzendari probintzialak ez du uste Bizkaia Euskadiko probintziarik ukituena denik, "datuak eta emaitzak neurtzen diren momentuaren arabera lurralde bat edo bestea izan daiteke ahulena. Langabeziari dagokionez, urte bateko balantzea egin beharko banu, Araba probintziarik zigortuena dela esango nuke". Gerora, Bizkaia eta Gipuzkoa kokatuko lirakeke, baina desberdintasun handiarekin lehenengoarekiko, Oyarbideren aburuz.

## "Estatuko langabezia tasaren parera iritsiko gara"

Euskal Herriko egoera Estatukoarekin alderatuz gero, INEMeko zuzendari probintziala oso kezkatuta dago, narriadura gero eta azkarrago doalako; "orain arte, krisiaren ondorioak gehienbat eraikuntzaren sektoreak pairatu ditu, baina Euskadin, lehen esan dudan legez, industriaren sektorea indartsuena da; beraz, denbora pasa ahala, gure lurraldeko langabezia mailak gora egingo du, Estatuko langabezia tasaren parera iritsi arte", dio Oyarbidek.

Bestalde, "gizon baino emakume gehiago daude langabezia. Aktibitate-tasa hazi egiten den neurrian, aurreikuspenak handiagoak dira; beraz, emakumeek erraztasun gehiago dituzte lan-merkatuan sartzeko", argitu du Oyarbidek.

Etorkizunari dagokionez, langabezia prestazioak bermatuta daudela ziurtatzen du zuzendari probintzialak, eta, era berean, INEMeko ikastaroen inguruko informazioa eta kurtsoen zerrenda Interneten eskuragarri egongo direla baieztatu du.



## ELKARRIZKETA

### Jorge Unda

*SENER Ingeniería y Sistemas S.A. ko zuzendari nagusia*



*Jorge Unda SENER Ingeniería y Sistemas S.A. ko zuzendari nagusia da, eta ondorengo elkarrizketan adierazi duenez, krisiak ez du hainbeste kaltetu bere enpresa. SENER ingeniartzaren arloko Espainiako lehenengo enpresa izan zen; hasiera batean, beraien xede bakarra ontzi-ingeniaritza lantzea zen, baina denbora pasa ahala, handituz joan dira, eta munduko gune desberdinetara hedatu dira. 1985. urtetik aurrera beste hiru sailetan zentratu ziren SENERekoak: ingeniaritza, industria aeroespaziala, eta energia eta ingurumena.*

# "Gure enpresatik, mundu osora zabaldu nahi ditugu eguzki-energiako plantak"

2006an, SENERek 50 urte bete zituen. Urteurren honen balantzea eginez gero, zein lorpenez sentitzen zarete harro eta zeintzuk dira zuen enpresan etorkizunerako dituzuen aurreikuspenak?

SENER 1956. urtean sortu zen ontzi-ingeniaritza bezala, baina gaur egun 4.800 profesional eta 920 milioi euroko fakturazioa duen teknologia eta ingeniaritza taldea da. Gure historian zehar, SENERek berriztapenera bideratu ditu esfortzu guztiak.

Gure enpresak ingeniartzaren ekintza guztiak batzen ditu; horrez gain, energia eta ingurumenaren inguruko konpainietan parte hartzen du, eta industria aeroespazialean baita ere. Baditugu enplegatu eta bulego ugari hainbat lekutan, adibidez: Madril, Bartzelona, Buenos Aires, Aljer, Lisboa, Okayama (Japonia), e.a. SENER erreferentzia bihurtu da bai Estatuan, baita nazioarte mailan ere. Bestalde, irtenbide berriztatzaileak proposatzen ditugu, eta %10 inguruko inbertsioa egiten dugu I+G+i delakoan.

Etorkizunari begira, espero dugu egoera berean mantentzea, berriztapenekin, eta nazioarteko ingeniartzan erreferentzia izaten jarraitzea.



Jorge Unda SENERko Zuzendari Nagusia

Espainiako Estatuak CO2ko isurketak murriztu behar ditu Kyotoko protokoloa betetzeko eta Europar Batasunarekin duen konpromisoa mantentzeko; energia garbiek izan daitezke irtenbidea energia-politika hau aldatzeko?

Bai, zalantzarik gabe hori izan daiteke irtenbideetako bat. Energia eta ingurumen sailetik Torresol Energyko ekimena proposatu dugu; horrela, mundu oso-tik hedatu nahi ditugu eguzki-energiako plantak. Hala ere, inbertsioa kontuan hartzekoa da, baina denbora pasa ahala, kostuak murriztu egingo dira eta mota honetako energiaren errentagarritasuna handitu egingo da.

Jorge Sendagortak, SENEReko presidentetarik, energia nuklearra Espainiara laster helduko dela adierazi du. Uste duzue energia nuklearra irtenbiderik zuzenena dela petrolioaren menpekotasuna saihesteko?

Alternatiba bat da, baina ez bakarra; beste aukera bat energia berriztagarriak izan daitezke. Kontuan hartu behar dugu oraindik ezin ditugula hondakin nuklearrak birziklatu, baina, denborarekin, teknologiak hori guztia posible egingo du. Energia nu-

## ELKARRIZKETA

klearra alternatiba zuzen bat izan daiteke; Europako hainbat estatu aukera hau planteatzen ari dira.

Krisia dela eta, inbertsioak gibelatzen dira edo proiektu berriak atzeratzen dira?

Gure kasuan, 2008. urtea marka onarekin itxi dugu, eta aurten ondo defendatu ahal izatea espero dugu. SENERen dibertsifikazioa oso positiboa da: Espazioa, Aeronautika, Kontrol eta Ekintza Sistemak, Ontzi Injeniaritza, Energia eta Prozesuen Plantak, eta Injeniaritza Zibil eta Arkiteturako sektorea. Egia esanda, nazioartean ezaguna den enpresa bat izateak ere laguntzen digu; izan ere, lehen azaldu dudana bezala, munduko hainbat gunetan gaude: Europa, Hego Amerika, Afrikako iparralde, e.a. Horrek guztiak lagundu egiten digu krisi garaian ez erortzen.

Nola darama SENERek abagune ekonomikoak?

Lasaitasunez eta kontu handiz, 50 urte hauetan izan ditugun baloreak mantenduz eta errespetatuz, gure proiektu-multzo garrantzitsuari esker ibilbide zuzena daramagu. Era berean, oso garrantzitsuak dira berriztapena, kalitatea, bezeroengan dugun arreta, eta SENERen lan egiten dugunon arteko laguntasuna.

SENER Elkarteak Hego Amerika eta Europako



SENER enpresak Getxon duen egoitza

Ekialdeko ingeniari berrirentzako bekak ematen ditu. Espainiar Estatuan ingeniariak falta al dira?

SENER Elkarteak Sendagorta familiaren ekimena da, 2003an sortutakoa. Elkartearen helburua ingeniari-tzako ikasleen prestakuntza osatzea da; gehienbat

baliabide gutxi dituzten herrialdeetako ikasleentzantzentratzen gara. Elkarteak aukeratzten dituen ikasleek ikasketak non egin

nahi dituzten aukeratu dezakete, gerora praktikak SENERen egiteko. Dena den, horrek ez du esan nahi etorkizunean gure enpresan lan egingo dutenik, baina egia da aukera ona dela gure plantillan lan egiteko. SENER Elkarteak ingeniari-tza

proiektuak ere finantzatzen ditu, eta sari-banaketak antolatzen ditu.

Bigarren galderari dagokionez, erantzuna baiezkoa da; Espainian ingeniari falta dago, batez ere espezializazio duten ingeniariak. Gutxienez, krisiaren aurretik eskaera eskaintza baino handiagoa zen.

Estatuko unibertsitateetan gero eta ikasle gutxiago matrikulatzen dira. Unibertsitateek prestakuntza aproposa ematen dute?

Espainiako eskolen heziketaren kalitatea ona dela uste dut, baina agian hobetu egin behar dira. Azken bolada honetan, nabaritu dugu lizentziatu berri diren ikasleen maila nahiko baxua dela; behin behin, SENERera heltzen direnek gero eta kualifikazio gutxiago izaten dute, eta hori, nire ikuspuntutik, oso kezagarria da.

Bestalde, prestakuntzari dagokionez, unibertsitateek, orokorrean, ikasleen analisi, sintesi eta sormen gaitasunak garatu behar dituzte. Gerora, urteak pasa ahala, enpresetan edo lanpostu desberdinetan lortuko dute espezializazioa.

Momentu honetan zein da euskal ingeniari-tzaren osasuna? Eta, orokorrean, Estatukoarena?

Oso osasun ona, zalan-tzarrik gabe. Estatuan eta, zehazki, Euskadin, ingeniari-tza enpresa handiak eta osasuntsuak daude, mundu osoko herrialde desberdinetan zehar proiektuak aurrera eramaten dituztenak.

Duela hilabete batzuk, Eusko Jaurlaritzari beste-errendu zaio I+G arloko eskumena. Zuek, adibidez, portzentaje garrantzitsu bat inbertitzen duzue ikerketa eta garapenean. Zein mesede egiten die horrek SENER bezalako euskal enpresei?

I+G politika aurrera eramaten duten instituzioen gorakada ona da.

Industrian, herrialde batzuek gorakada izugarria izan dute azken urte hauetan, esaterako, India eta Txinaren BPG igo egin da. Nola egin aurre asiarraldio hauei?

Txina eta Indiako aurrerapena eta haien sarrera "lehenengo munduan" oso azkarra izaten ari da, eta, aldi berean, beharrezkoa. Nire ustez, aukera bezala ikusi behar dugu, eta ez mehatxua izango balitz bezala. Era berean, kontuan izan behar dugu sarrera honekin berriak irekitzen direla. Gaurak horrela, gure produktuak milioika pertsonarengana iritsi daitezke.

Tarifa erre-gulatua desagertzearen ondorioz, elektrizitatea %50 garestitu da industriaren sektorearentzat. Kaltetuak izan zarete neurri berri horren ondorioz?

Kostuen gorakada inoiz ez da berri positibo edo ona izaten; hala ere, kasu honetan, ez dugu energia asko kontsumitzen, eta, beraz, neurri berri horrek guri ez digu hainbeste eragiten.

“Espainian ingeniari falta dago”

“India eta Txinaren sarrera lehenengo munduan beharrezkoa da”



Gemasolar izeneko eguzki-planta

## TEKNOLOGIA

### PDA: gure etorkizuna

PDA ingelertatik datozen siglak dira, bere esanahia honako hau da: Personal Digital Assistant. Eskuko ordenagailu hau agenda elektronikoa izango balitz bezala diseinatua dago, batez ere goi-kargudunek erabiltzen dituzte, EAEn oraindik ez dira asko erosten, baina azken bolada honetan zerbait igo dira bere salmentak eta aldi berean bere erabilera. Azken finean, ordenagailu batek dituen funtzio berberak ditu: filmeak ikusi, mezuak bidali, musika entzun, e.a. Hamaika ekintza egin ditzakegu gaur egun sakeleko baten tamaina duen agenda elektronikoa honekin.

Mota desberdinetako PDAk aurki ditzakegu gaur egun merkatuan, ukimenezko pantaila edo interneterako konexioa dutenak, esaterako. Hona hemen adibide batzuk:



#### PC Mobil HTC Advantage X7510

Prezioa: 889 €  
Ezaugarriak:  
16 Gbko memoria /  
13 zm-ko pantaila,  
VGAKoa / GPS /  
hatzamarren mugimenduak ezagutzen ditu  
<http://www.htc.com/es>



#### PDA Telefonoa - GLOFIISH M810

+ GPS + WIFI  
Prezioa: 399 €  
Ezaugarriak: Bluetooth /  
256Mb-ko ROM memoria /  
Kamera digitala (2MPX) /  
Bideoa  
<http://www.glofiish.com>



#### PDA Telefonoa GLOFIISH X600

+ GPS + WIFI  
Prezioa: 274,95 €  
Ezaugarriak:  
Bluetooth / E-mail /  
Kamera digitala (2MPX) /  
Java  
<http://www.glofiish.com>

## ARDOAK

Dakigun bezala txakolinaren jatorria Euskal Herrian dago, bere ekoizpena batez ere Zarautz eta Getarian zentratzen da, bien jatorri-izendapena "Getariako Txakolina" izanik. Ardo zuria da eta mahats berdeekin eratu. Bere graduazio alkoholikoa 10,5 eta 12°en artekoa da. Txakolina zerbitzerakoan sidra ateratzen dugun bezala egin behar dugu, hots, altuera jakin eta luze batetik atera. XIX. mendearen aurretik txakolina gehienbat Kantabria aldean ekoizten zen, Noja, Colindres edo Arnuelo herrietan, esaterako.

### Txakolina

Euskadin hiru txakolin mota edo jatorri-izendapen desberdin aurki ditzazkegu:



#### BIZKAIKO TXAKOLINA

Izena: *Itsas mendi*  
Urtea: 2006  
Prezioa: 10€



#### ARABAKO TXAKOLINA

Izena: *Xarmant*  
Urtea: 2004  
Prezioa: 6€



#### GETARIAKO TXAKOLINA

Izena: *Talai Berri*  
Urtea: 2006  
Prezioa: 8€

(Txakoli gorria eta beltza egon ere badaude)

## JATETXEA

### Kaialde Jatetxea

1995eko irailaren 13an Pasaiaiko portuaren parean ireki zituen atea Kaialde Jatetxea, Josetxo Burlada nagusi eta sukaldari autodidaktaren eskutik. Sukaldaritzatradizionala eskaintzen digu, baina ukitu pertsonal batzuekin.

Kaialden bi jangela daude, 40-45 lagunentzako. Jangeliaren kalitatea froga nahi baduzue gogorazten dizuegu erreserbak onartzen direla. Hona hemen ordutegia eta eskatu dezakezun menu berezia. On egin:



Kaialde jatetxearen jantokia

#### MENU BEREZIA

Hasierakoak  
- Perretxiko eta barazki entsalada gularekin  
- Barazki gratinatua foirekin  
- Arrai zopa  
- Zainzuri, urdaiazpiko eta otarrainska hostopiloa

#### Bigarren platera

- Bakailoa labean iberiar kremarekin eta porru kurruskariarekin  
- Txipirotiak plantxan  
- Entrekota plantxan gazta saltsarekin  
- Arkume txuletilak plantxan

#### Azkenburukoak

- Hojaldrezko milhorria kremarekin  
- Pantxineta epela izozkiarekin  
- Trufa tarta  
- Gazta eta irasagar hojaldrea

**Guztira: 16€**

(Eguneko menu berezian ogia, ardoa edo ura barne daude, aldia, kafea eta kopak ez dira prezioan sartzen. BEZ-aren %7-a ez dago kontuan hartua prezioan.)

Kaialde jatetxea / Polenzarrene 6, Lezo 20100 (Gipuzkoa) / Telf. 943 512 003 /  
kaialde@kaialde.com / www.kaialde.com

Ordutegia: Astelehenerdik - ostiralera: 12:30 - 15:30  
Asteburuak: 13:00 - 15:00  
Gauak: ostiral eta larunbatak 20:30tik 22:30ra

# AISIALDIA

## Estresari aurre egiteko hileko proposamena

### La panera (Cillamayor - Palencia)

Lagunekin edo bikotearekin atsedean bat hartu

Asteburu oso bat etxe eta hiritik kanpo pasatzeko baserri-etxe batera joatea gomendatzen dizuegu. Kasu honetan Palenciako etxe polit eta zahar bat da gure proposamena.

Etxe osoaren akura egin dezakezu, sei pertsonentzako lekua baitago. Eraikuntzan errespetatu dituzte antzina-ko elementu arkitektonikoak; bestalde, harria eta haritz-egurra baserri antza ematen dio etxeari.



Bi solairutan banatzen da etxea. Behean, ate nagusitik sartu ondoren, hall txiki bat aurkituko dugu eta ondoan egongela handi bat, bertan tximinia dago eta denbora pasatzeko hainbat tresna (musika entzuteko minikatea eta telebista bideoarekin, esaterako). Sukaldea eta jangela bateratuak daude, honako etxetresna elektrikoak daude sukaldea: garbigailua, bitrozeramika, hozkailua eta mikrouhinak. Jangelan zazpi lagunentzako egurrezko mahai handi bat dago. Azkenik ere bainugela txiki bat aurki dezakegu.

Goiko solairuan sabaia oso altua da eta hiru logela daude. Pisu honetako bainugela handiagoa da, eta erlaxa zaitez hidromasailak ematen dituen bainuontzian.

Casa La Panera 34829 - Cillamayor (Palencia) /  
Telf 979 12 27 54 - 646 11 16 35 /  
[lanpanera@hotmail.com](mailto:lanpanera@hotmail.com) / [www.casalapanera.com](http://www.casalapanera.com)



Baserri-etxe kanpoaldea, harrizko fatxadarekin

**Prezioa:**  
Asteburu bat- 280€  
Aste bat- 600€  
Hilabete oso bat- 1150€  
Egun gehigarria- 100€



**Nola heldu:**  
*Trenez* ailegatzea errazena izan daiteke. Bilbon feve hartu:  
o Bilbo - León 14:35etan  
o León - Bilbo 17:39tan  
Informazio gehiago helbide honetan: [www.feve.es](http://www.feve.es)

*Autobusez* ere, baina Continental Auto konpainiarekin, Bilbo - León ibilbidea ere:  
Tfno: 94 427 42 00 - [www.continental-auto.es](http://www.continental-auto.es)

# LAN ESKAITZAK

**EUSKERAKO IRAKASLEA**  
Eskoriatzako ikastetxe baterako EUSKERA IRAKASLEA behar da. EGINKIZUNA: DBH eta Batxilergoan euskara klaseak eman. EZINBESTE-KOA: Euskal Filologian lizentziatuta, EGA eta IZG (Irakasgaitasunaren Ziurtagiria, CAP). KONTRATUAREN IRAUPENA: epe motzerako ordezkapena (seguruenik egun gutxi batzurako). JARDUNALDIA: osoa. Berehala lanean hasteko.

**GAZTELEKUKO BEGIRALEA BEASAINERAKO**  
Beasaingo gazte guneko begiralea, proiektu helburuak lortzeko ekintzak burutu, ebaluazioak egin eta euskera bultzatu. Larunbat eta igandetan 3:30-etatik 8:30-etara, 350€ gordin, apirilak 4 edo 11 hasteko. Begirale titulua izan, EGA, gizarite hezkuntza edo heziketa alorreko ikasketak izatea. Goierritarra

**KAZETARIA**  
Kazetaritza lana, testuak idatzi, informazioa landu, kamara aurreko lanak, elkarrizketak egin. Kazetari bezala esperientzia. Euskera menperatzea eta gidatzeko baimena, editatzea jakitea, Adobe Premiere programa. Goierrri edo inguruko. 6 hilabetetako kontratua jarraitzeko aukerarekin. Lanaldi osoa astelentetik-ostiralera.

**UDALEKU IRIKIETARAKO HEZITZAILEAK**  
Irungo Udalak antolatuko dituen udarako udaleku irikietarako 75 HEZITZAILE uztailerako eta 25 abuzturako behar dira. BETEBEHARREKOAK: hasi baino lehen 18 urte beteta izatea, eta euskara maila ona izatea. HAINZAT HARTUKO DA: Haur eta aisialdiko begirale titulua; aisialdian esperientzia eta hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak izatea. ES-KAINTZA: Orduetgia: 9:15 - 13:30; soldata 639 euro gordinak hilean.

**EUSKERAKO IRAKASLEA**  
Eskoriatzako ikastetxe baterako EUSKERA IRAKASLEA behar da. EGINKIZUNA: DBH eta Batxilergoan euskara klaseak eman. EZINBESTE-KOA: Euskal Filologian lizentziatuta, EGA eta IZG (Irakasgaitasunaren Ziurtagiria, CAP). KONTRATUAREN IRAUPENA: epe motzerako ordezkapena (seguruenik egun gutxi batzurako). JARDUNALDIA: osoa. Berehala lanean hasteko.

**KOMERTZIALA**  
Usurbilgo enpresa batek behar du: Komertziala hostalaritzako hainbat kafe produktuak saltzeko. Ezinbesteko baldintzak: Lan esperientzia hostalaritzan komertzial lanetan. Baliogarrria izango da euskara jakitea, eta sektorea ezagutzea. Lan Baldintzak: 4 hilabeteko lan kontratua hasieran. Jardunaldi osoa. Soldata interesgarria. Berehala hasteko.

**HAUR ZAINZAILEA**  
Haur bat zaindu eta etxeko lanak egin behar dira (garbitu, lisatu, janaria prestatu, ...). Ezinbesteko baldintzak: Zumarraga edo Urretxukoa izatea. Haurrekin esperientzia izatea. Maitekorra eta alai izatea. Zentzuduna izatea. Euskaraz jakitea baloratuko da. Orduetgia: 8retatik 13ak arte eta 15retatik 18rak arte. Soldata: bi alderdien artean erabakitzeko.

Lan eskaintza gehiago Lanbide.net Euskal enplegu zerbitzuko webgunean.

# EKONOMIA HIZTEGIA

- LISKAR = PELEA
- UKATU = NEGAR
- ERALDAKETA = MODIFICACIÓN
- LEHENTASUN = PRIORIDAD
- URRATU = RASGAR
- LANGABEZI = DESEMPLEO
- BIDERATU = TRAMITAR
- GORENTASUN = SUPREMACIA
- ENERGIA BERRIZTAGARRI = ENERGIA RENOVABLE
- LORPEN = LOGRO
- HONDAKIN = RESIDUO
- GIBELATU = RETRASAR
- LARRIAGOTU = AGRAVAR
- PAIRATU = SOPORTAR
- AHOLKULARI = ASESOR
- ONURADUN = BENEFICIARIO
- ESANGURATSU = EXPRESSIVO
- HAMAIIKA = GRAN CANTIDAD

# SUDOKU

Buruari gogor eutsi eta ebatzi sudoku hau

3				6			4	9
1							5	2
		5						
2				9				
		9	4		5			1
		7	3		1			
		3			7			
8	6				2	7		5
						2		

### ERANTZUNAK

Zenbat denbora eman duzu sudokua ebazteko?  
Hona hemen erantzunak.

3	9	2	6	4	8	1	5	7
5	6	7	2	1	3	8	9	4
8	2	3	6	5	7	4	1	9
5	4	7	3	8	1	9	6	2
6	3	4	2	5	8	7	1	9
4	9	5	2	1	3	6	8	7
2	1	8	7	9	6	5	3	4
4	9	5	2	1	3	6	8	7
1	8	9	7	4	3	5	2	6
3	7	2	5	6	1	4	9	8

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94 421 30 31  
E-MAILA: ekonomiarenkz@leizaola.org  
POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kutxatila, 48080 Bilbao  
ADMINISTRAZIOA: Pabai Zubiaur.  
MERKATARITZA KUDEAKETA: Nuria Martínez  
TESTUAK: David Hillera  
DISEINU ETA MAKETAZIOA: Gonzalo Peña.  
BANAKETA ARDURADUNA: Sergio Fernández.  
EUSKAREN ARDURADUNA: Labayru Ikaestegia  
EGILEA: Leizaola Elkarte  
HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonon.



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Ekintza honek Bizkaiko Foru  
Aldundiaaren Kultura Sailaren  
laguntza jaso du.

# €konomiarenKZ

Euskal Ekonomiaren Kazeta

2009ko Martxo

Lo nuestro es **EL FUTURO**



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

**Lo nuestro es** garantizar un mañana lleno de oportunidades para la juventud de Bizkaia. Un futuro que se construye desde el presente, con programas educativos y de formación, ayudas y subvenciones, propuestas culturales y de ocio. De esta manera, nuestro compromiso es sembrar para recoger, crear riqueza para repartirla en una Bizkaia que cada día es más dueña de su porvenir.

**BIZKAIA**, lo nuestro